



MINISTERIO
DEL INTERIOR



IBILGAILUAREN TITULARTASUN-ALDAKETA EDO SALMENTA

GARRANTZITSUA: Ibilgailuaren titulartasun-aldaketa eskatu baino lehen egin beharko duzuna da:

- Ondasun Higikorren Erregistroan inskribaturiko edozein erabilpenmugapen ezeztatu, finantza-erakundearen berariazko baimena salbu.
- Ibilgailuen Erregistroan idatziriko garraio urraketengatik inposaturiko isunak ordaindu.
- lazko edo aurtengo Zirkulazio-Zerga kitatu.
- **Gogoratu buruzagitza guztietan izapideak egiteko aurretiko zita eskatu behar duzula.**

■ **Eskaera:** inprimaki ofizialean. (www.dgt.es-en inprimaki eskuragarria)

■ **Tasa** 8,40 €ko zenbatekoa. (Ez dago eskudirutan ordaintzerik).

■ **Interesdunen identifikazioa:**

Pertsona fisikoak: titularrak bere nortasuna eta helbidea egiaztatzen duen dokumentu ofiziala aurkeztuko du (NAN, gida-baimena espainiarra, egoitza-txartela, pasaporte gehi Atzeritarren Identifikazio Zenbakia).

Pertsona juridikoak: elkarrearen identifikazio fiskalaren txartela eta ordezkapena egiaztatzea eta sinatzen duenaren nortasuna (Eredu eskuragarria www.dgt.es-en)

Adingutxikoak edo ezgaituak: aita, ama edo tutorearen datuak eta sinadura, bere NAN.-a eta iharduten duten kontzeptua egiaztatzen duen dokumentua.

■ **Eskualdatzearen egiaztatzearen hartzailearen** NAN, CIF edo NIF agertzen den. (kontratua, fakturaren bat pertsona juridikoa bada, ordainagiria).

■ **Zirkulazio baimena.**

■ **Aurreko dokumentuez gainera:**

Nekazal ibilgailuak: Autonomia Erkidegoaren Nekazal Makineriaren Erregistro Ofizialean inskribapenaren dokumentu egiaztatzailea, DGTeko Ibilgailuen Erregistroko ziurtagiri telematikoa dagoenean izan ezik.

Ibilgailu Zehatzei buruzko Zerga Berezia ordainketa/esentzioaren egiaztatzea, autoeskolaren ibilgailuen titulartasun aldaketa kasuetan, gidaririk gabeko alogera, taxia, egoitza-aldaketa, guzti horiek matrikulazio-garaian ordainketatik kanpo egon zirenean, legez aurrikusitako epeak amaitu baino lehen egiten direnean.

OHARRA: Ibilgailua sal-erosketa bati eskualdatzen bazaio, eskualdatzearen jakinarazpena **bere aldi baterako baja** ekarriko du.

Ibilgailua partikular bati eskualdatzen bazaio, **titulartasuna idatziko da** baina ez da zirkulazio baimena luzatuko.

OHARRA: Izapidea titularrak aurkezten ez badu, honek sinatutako baimena, jatorrizko NANarekin batera, beharrezkoa izango dira, non doako izaera adieraziko den (www.dgt.esn eredu eskuragarria).

Goian eskatutako daturen batek frogagiri fede-emailea ez badu, dokumentazio gehigarria eska daiteke.